

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

1/2023 Foru Agindua, urtarrilaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen baitira honako foru agindu hauek: abenduaren 10eko 770/2014 eta abenduaren 11ko 880/2000, hurrenez hurren onesten dituztenak 187 eta 345 ereduak

Abenduaren 10eko 770/2014 Foru Agindua aldatzea, 187 eredu arautzekoa (inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen adierazgarri diren akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenten edo ondare-irabazien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko aitortpenarena), bai eta abenduaren 11ko 880/2000 Foru Agindua aldatzea ere, 345 eredu arautzekoa (borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen, planen, pentsio funtsen, sistema alternatiboen, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen, aurreikuspen-plan aseguratuen, aurrezki sistematikoko banakako planen, enpresako gizarte-aurreikuspeneko planen eta mendekotasun-aseguruen urteko aitortpena), funtsean, arau erreferentziak eguneratzeko da, bai eta gainerako zerga-administrazioekin informazioa behar bezala trukatzeko eta, ondorioz, zerga-kudeaketa hobetzeko beharrezkoak diren egokitzapen teknikoak egiteko ere.

Horrela, foru agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen eta 187 eta 345 ereduaren informazio aitortpenari aplikatzeko zaion araudia.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak egin duen txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 10eko 770/2014 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 187 eredu, Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitalaren edo ondarearen adierazgarri diren akzioak eta partaidetzak eskualdatu edo ordaintzearen ondorioz lortutako errenten edo ondare irabazien gainean kontura egindako atxikipenak eta sarrerak urteko aitortpena. Urteko laburpena.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 10eko 770/2014 Foru Aginduari:

Bat. Aldatzen da "ERAGIKETA MOTA" eremuaren azalpena, 104 posizioa duena, Foru Agindua II. eranskinean jasotzen diren 187 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (eragiketaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
104	Alfabetikoa	ERAGIKETA MOTA Eragiketa mota zehaztu behar da ondokoaren arabera:
		A Eskuraketak, "B", "I" edo "R" gakoa dutenak izan ezik.
		B Talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetza eskualdatuta edo ordainduta jasotako zenbatekoak berrinbertitu egiten diren akzio edo partaidetza eskuraketak, baldin eta lortutako ondare irabazia edo ondare galera konputatu ez bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 48. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera. Salbuespena: eskualdaketa baimenaren idazkian akziodunak edo partaideak Talde inbertsioko erakundeei buruzko 35/2003 Legeko 28.2 artikuluan aipatzen den komunikazioa egiten duenean.
		C Kotizatzen duten inbertsio funtsen partaidetzen edo SICAV indize kotizatuen akzioen besterentzeak (eskualdatzeak edo itzulketak), Talde inbertsioko erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 79. artikuluan arautzen direnak.
E Besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), "C", "F", "G", "H", "J", "P", "Q" edo "T" gakoa dutenak izan ezik.		

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA	
104	Alfabetikoa	F	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 48. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera lortutako ondare irabazia edo ondare galera konputatu behar ez den besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak). Salbuespena: eskualdaketa baimenaren idazkian akziodunak edo partaideak 35/2003 Legeak, Talde inbertsioko erakundeak, 28.2 artikuluan aipatzen duen komunikazioa egiten duenean.
		G	"Bazkide edo partaide mota" eremuan "C" gakoa duten eskualdaketak edo itzulketak, baldin eta atxikipenik aplikatu ez bada barruko edo itundutako arautegian ezarritako salbuespena dela eta, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 770/2014 Foru Agindua, abenduaren 10ekoan, onartzen duenean 187 ereduak, 7. artikuluan ezartzen den prozedura bereziarekin bat etorritik.
		H	"Bazkide edo partaide mota" eremuan "C" gakoa duten eskualdaketak edo itzulketak, baldin eta atxikipena egin bada Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 1. idatz zatiko f) letrako 3. zenbakian ezartzen den karga tasa aplikatuta, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 770/2014 Foru Agindua, abenduaren 10ekoan, onartzen duenean 187 ereduak, 7. artikuluan ezartzen den prozedura bereziarekin bat etorritik.
		I	Talde inbertsioko erakundeak akzioak edo partaidetzak eskualdatuta edo ordainduta jasotako zenbatekoen berrinbertsio diren akzio edo partaidetza eskuraketak, lortutako ondare irabazia edo ondare galera konputatu ez zaienak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 48. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik, baldin eta akziodunak edo partaideak Talde inbertsioko erakundeei buruzko 35/2003 Legeko 28.2 artikuluan aipatzen den komunikazioa egin badu eskualdaketa baimenaren idazkian.
		J	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 48. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera lortutako ondare irabazia edo ondare galera konputatu behar ez den besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), baldin eta akziodunak edo partaideak Talde inbertsioko erakundeei buruzko 35/2003 Legeko 28.2 artikuluan aipatzen den komunikazioa egin badu eskualdaketa baimenaren idazkian.
		M	Sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetza ordezkatzen duten balioetatik datozen eta atxikipena aplikatuko zaien harpidetza eskubideen salmenta.
		P	Inbertsio funtsen eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateen batereko ondoriozko eskualdaketak edo itzulketak, ondarean gertatutako irabazia edo galdera zenbatu behar izanez gero. Gako hau ipini behar dute batereko ekitaldian irentsitako inbertsio kolektiboko entitateek aplikatu ezin denean abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VII. kapituluaren ezartzen duen zerga araubidea.
		Q	Inbertsio funtsen eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateen batereko ondoriozko partaidetzak eragiten dituzten eskualdaketak, itzulketak edo beste inbertsio funts baterako intsuldaketak. Gako hau ipini behar dute inbertsio funts irenseleek ekitaldian intsuldaketa eginez gero beste inbertsio funts batera, baldin eta batereko gertatu den ekitaldian abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VII. kapituluaren ezartzen duen zerga araubidea aplikatu ahal bada eta eta traspasoa egiten den ekitaldian bat-egite horren egunera arte sortutako errentari ezin bazaio aplikatu Arabako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 48.1 artikuluan jasotako zerga araubidea.
		R	Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 29. artikuluko 4. paragrafoaren a) edo b) letratan aurreikusitako inbertsio kolektiboko erakundeetan akzioak edo partaidetzak eskuratzea edo harpidetzea, baldin eta SICAVen likidazio kuotaren berrinbertsioa badira eta, beraz, erakundearen likidaziotik datozen errentak ez badira txertatu zerga oinarrian, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren hogeita batgarren xedapen iragankorraren 1. paragrafoaren b) letran araututako araubidea aplikatuta.
		T	Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren hogeita batgarren xedapen iragankorri atxikitako kapital aldakorreko inbertsio sozietateen likidazioaren ondoriozko eskualdaketa (ezeztapena), baldin eta, 1. paragrafoko b) letran araututako berrinbertsio araubidea aplikatzeagatik, erakundearen likidaziotik datozen errentak zerga oinarrian txertatu ezin badira.

Bi. Gehitzen da "LIKIDAZIOAN DAGOEN EDO LIKIDAZIOA EGINDA DUEN SOZIJETATEA IDENTIFIKATZEA" eremuaren azalpena, 242tik 260ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduen II. eranskinean jasotzen diren 187 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (eragiketaren erregistroa), haren edukia hau da (aldi berean, ZURIUNEAK eremuaren posizioak eguneratzen dira):

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
242-260	Alfanumerikoa	LIKIDAZIOAN DAGOEN EDO LIKIDAZIOA EGINDA DUEN SOZIJETATEA IDENTIFIKATZEA Eragiketa mota "R" denean, eremu horretan SICAVen (Zerga Administrazioa) identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da, zeinaren likidazio kuotak berrinbertitu baitira azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 29. artikulua 4. apartatuaren a) edo b) letretan aurreikusitako inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak edo partaidetzak erosteko edo harpidetzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren hogeita batgarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoarekin bat etorri.
261-389	—	ZURIUNEAK

Bigarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 11ko 880/2000 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 345 eredua, Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateak, pentsio plan eta funtsak, gizarte aurreikuspeneko sistema alternatiboak eta mutualitateak, Aseguratutako aurreikuspen planak, aurrezpen sistematikorako banakako planak, enpresarien gizarte aurreikuspeneko planak eta menpekotasun aseguruak urteko aitortpena, bai eta eredu horren ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriaren diseinu fisiko eta logikoak ere.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 11ko 880/2000 Foru Aginduari:

Bat. Aldatzen da "GAKOA" eremuaren azalpena, 82 posizioa duena, Foru Aginduen II. eranskinean jasotzen diren 345 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuen erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
82	Alfabetikoa	GAKOA Gako zerrenda honetan dagokion gako alfabetikoa jarri behar da:
		BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENERAKO ERAKUNDEAK / PENSIO FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILAEK:
		A Bazkide arruntzen/partaideen ekarpenak. Gako hori borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako (BGAE) bazkideen eta partaideen pentsio funtsetara egindako ekarpen pertsonalak idatzeko erabiliko da, edozein dela ere BGAE eta pentsio plan mota. Era berean, gako hori erabiliko da jakinarazteko partaideek zer ekarpen egiten duten enpresak oro har ekarpenak egiten dituen enpleguko pentsio plan bererak. Horretarako, eremu horretarako adierazten diren azpigakoak erabiliko dira.
B Bazkide babesleen edo sustatzaileen kontribuzioak. Gako honekin identifikatu behar dira bazkide babesleek eta sustatzaileek enplegu sistema edo modalitateetan egin eta bazkide arruntei eta partaideei zerga ondoretarako egotzi zaizkien kontribuzioak, baita enpresa kontribuzioak ere, zerga ondoretarako egotzi ezin zaizkien eta salbuespenez eginak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren 5.3.c) artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat etorri. Honen barruan sartzen dira, halaber, sustatzaileek berrorekatze planak burutzeko egindako enpresa kontribuzioak, aipatutako Pentsio Planak eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren 4 eta 6. xedapen iragankorriari helden direnak, baita sustatzaileek berrorekatze planak burutzeko egindako ekarpenak ere, Pentsio Plan eta Funtsari buruzko 8/1987 Legeko lehen xedapen iragankorriari helden direnak.		
		Gakoaren arabera ("A" edo "B"), erregistro bereizietan jaso behar dira % 65eko desgaitasun fisikoa edo zentzumenezkoa edo hortik gorakoa eta % 33ko ezintasun psikikoa edo hortik gorakoa duten pertsonen edo epai adierazpenaren bidez aitortutako ezintasuna duten pertsonen ordaindutako kopuruak. Gogoan izan kasu horietan nahitaez adierazi behar dela onuradunaren IFZ. Ekarlea desgaitua bera izan daiteke, edo ahaideren bat, zuzeneko zein hirugarren graduraino albo lerrokoa, edo ezkontidea, edo tutorea nahiz harrera egilea, edo sustatzailearen bat. Ekarlea ez sustatzailea ez desgaitua bera ez bada, onuradunaren IFZ ez ezik "A" gako ere jarri behar da.

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
82	Alfabetikoa	BGAE-EN BAZKIDE BABESLEAK / PENTISIO PLANEN SUSTATZAILEAK
		C Bazkide babeslearen edo sustatzailearen ekarpen kengarriak. Gako hau erabiliko da BGAEetako bazkide babesleen eta enplegu sistemako pentsio planen sustatzaileen ekarpenak adierazteko, baldin eta zerga pertsonaletan kengarriak badira eta bazkide arruntei eta partaideei fiskalki egozten bazaizkie (langilearen erabaki baten ondorio izan ala ez). Horrez gain, gako hau erabiliko da, halaber, enpresaburu indibidualak BGAEei eta pentsio planei egiten dizkien ekarpen adierazteko, baldin eta entitate eta plan horien bazkide sustatzaile eta bazkide arrunt zein sustatzaile eta partaide ere bada, eta ekarpen horiek bere zerga pertsonaletan kengarriak badira. Horretarako, kasu bakoitzerako aurreikusitako azpigoakoak erabiliko dira.
		ORDEZKO SISTEMEI HELDU DIETEN ENPRESAK EDO ERAKUNDEAK
		D Enpresa edo erakundearen ekarpenak eta zuzkidurak.
		GIZARTE AURREIKUSPENERAKO MUTUALITATEAK
		E Profesionalek edo banakako enpresariak ordaindutako kopuruak, murrizketa eskubidea ematen dutenak. Gako honekin jaso behar dira profesionalek edo banakako enpresariak ordaindutako kopuruak, baita lehenen mailarainoko odolkidetasuneko ahaideek eta aipatutako mutualitateetako langileek ordaindutakoak, hain zuzen ere, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuan aurrez ikusten diren arriskuak estaltzeko direnean.
		F Besteren konturako langileek edo bazkide langileek ordaindutako kopuruak, murrizketa eskubidea ematen dutenak. Gako hau jarrita adierazi behar dira soil-soilik besteren konturako langileek edo bazkide langileek pentsio planetarako gizarte aurreikuspen sistema alternatibo gisa diharduten gizarte aurreikuspeneko mutualitateei ordaindutako kopuruak, hain zuzen ere azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuan aurrez ikusten diren arriskuak estaltzeko direnean, aipatutako langileentzako langabezia barne.
		G Sustatzaileak ordaindutako kopuruak. Gako hau jarrita adierazi behar dira sustatzaileak ordaindutako kopuruak, baldin eta langileari zerga ondoreetarako lan etekinen kontzeptuan eragozten badira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarria murrizten badute eta Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuko lehen xedapen gehigarrian aurrez ikusitakoarekin bat etorritik burutzen badira, aipatutako langileen langabezia barne. Gakoaren arabera ("E", "F" edo "G"), erregistro berezietan jaso behar dira %65eko desgaitasun fisikoa edo zentzumenezkoa edo hortik gorakoa eta %33ko desgaitasun psikikoa edo hortik gorakoa duten pertsonen edo epai adierazpenaren bidez aitortutako ezintasuna duten pertsonen ordaindutako kopuruak. Gogoan izan kasu horietan nahitaez adierazi behar dela onuradunaren IFZ. Ekarlea desgaitua bera izan daiteke, edo ahaideren bat, zuzenekoa zein hirugarren gradurainoko albo lerrokoa, edo ezkontidea, edo tutorea nahiz harrera egilea, edo sustatzailearen bat. Desgaitua modu bakar eta ezeztazezinean izendatu behar izan da onuradun. Ekarlea ez sustatzaile ez desgaitua bera ez bada, ekarpena erregistro berezian zehaztu behar da, eta onuradunaren IFZ ez ezik "E" edo "F" gakoa jarri behar da.
		ASEGURATUTAKO AURREIKUSPEN PLANAK
		H Aseguratutako aurreikuspen planetarako primak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiari buruzko Foru Arauaren 70.1.5. artikulua jasotzen duen aseguratutako aurreikuspen planetarako ezarri diren primen zenbatekoa jarriko da. Honako kasu honetan, erregistro independenteetan jarri beharko da aseguratutako aurreikuspen planerako jarri den prima: %65eko edo gehiagoko desgaitasun maila duten pertsonentzako egin bada, edo epaitegien bidez aitortutako ezintasuna duen pertsona batentzako jarri bada. Horrelako kasuetan, nahitaez ezarri behar da onuradunaren IFZ. Prima ordaintzen duena desgaitua bera izan daiteke, edo haren ahaide zuzena, edo hirugarren mailarainoko zehar-ahaidea, bai eta ezkontidea ere, edo tutoretza zein harrera erregimenean duen pertsona. Desgaitua onuradun gisa agertu behar du, era garbi eta ezeztazezinean. Prima ordaindu duena desgaitua bera ez den beste pertsona bat bada, prima horren ordainketa erregistro independente baten bidez gauzatu da; horretarako, "H" gakoa ezarri beharko da, bai eta onuradunaren IFZ ere.
AURREZPEN SISTEMATIKOKO BANAKAKO PLANAK		
I Aurrezpen sistematikoko banakako planei ordaindutako guztizko primak.		

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
82	Alfabetikoa	ENPRESAKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN PLANAK
		J Enpresako gizarte-aurreikuspeneko planei ordaindutako primak. Aparteko erregistroetan kontsignatu beharko dira, azpigakoaren arabera, % 65eko edo hortik gorako desgaitasun fisiko edo sentsoriala, %33ko edo hortik gorako desgaitasun psikikoa edo judizialki aitortutako ezintasuna duten pertsonen alde eraturako enpresako gizarte-aurreikuspeneko planei ordaindutako primak. Kasu horietan, ezinbestekoa da onuradunaren IFZ kontsignatzea. Desgaitua bera modu bakarrean eta salbuespenik gabe izendatu behar dute onuradun. Prima ordaintzen duena desgaitua bera ez den beste pertsona bat izanez gero, primaren ordainketa aparteko erregistro baten bitartez kontsignatuko da, eta "J" gakoia eta onuradunaren IFZ adierazi beharko dira.
		MENDEKOTASUN-ASEGURUAK
		K Hartzaileek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Aginduko 72.7 artikuluan zehaztutako mendekotasun larriko edo mendekotasun handiko arriskua estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak. Aparteko erregistroetan kontsignatu beharko dira gorago aipatutako eta %65eko edo hortik gorako desgaitasun fisiko edo sentsoriala, %33ko edo hortik gorako desgaitasun psikikoa edo judizialki aitortutako ezintasuna duten pertsonen alde eraturako mendekotasunaseguruei ordaindutako primak. Kasu horietan, ezinbestekoa da onuradunaren IFZ kontsignatzea. Prima desgaitua berak ordaindu ahal du, zuzeneko senideren batek edo hirugarren mailaraino zeharkakoren batek, hirugarren mailakoak barne, edota desgaitua tutoretza edo harrera erregimenean duten ezkontide edo bestelakoek. Desgaitua modu bakarrean eta salbuespenik gabe izendatu behar dute onuradun. Prima ordaintzen duena desgaitua ez den beste pertsona bat izanez gero, primaren ordainketa aparteko erregistro baten bitartez kontsignatuko da, eta "K" gakoia eta onuradunaren IFZ adierazi beharko dira.
L Mendekotasuneko aseguru kolektiboei ordaindutako primak. Erregistro independenteetan jaso beharko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 70.1.7 artikulua azken aurreko paragrafoan aipatzen diren mendekotasuneko aseguru kolektiboei ordaindutako primak. Aseguru horiek azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen Pentsio Planak eta Funttsak arautzeko Legearen Testu Bateginaren lehen xedapen gehigarrian adierazitako baldintzak bete beharko dituzte, eta aseguru-hartzaile gisa enpresa soilik agertuko da, eta aseguraturua eta onuraduna langilea izango da.		
Z Gizarte-aurreikuspeneko sistemei enpresa arloan egindako ekarpenak, kuotan kentzeko eskubidea izan dezaten 3/2007 Foru Aginduko Hamazazpigarren Xedapen Iragankorrean jasotako arauzko baldintzak beteko dituztenak. OHARRA: Ez da egokia 2012/01/01etik (ikus 3/2007 Foru Arauaren 17. xedapen gehigarria)		

Bi. Aldatzen da "AZPIGAKOA" eremuaren azalpena, 83tik 84ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 345 eredu diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuen erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
83-84	Numerikoa	AZPIGAKOA "A", "B", "C", "D", "E", "F", "G", "I", "J" eta "L" gakoak direnean, dagokion zenbaki azpigakoa idatzi behar da, zerrenda honen arabera: "A" gakoari dagozkion ekarpenetan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau idatzi beharko da, baldin eta partaideek edozein modalitateko pentsio planetara egindako ekarpenak badira, 02 azpigakoan aipatutakoak izan ezik..
		02 Azpigako hau idatzi beharko da, baldin eta langileen ekarpenak eta enpresak oro har egiten dituen kontribuzioak enplegu sistemako pentsio plan berera egiten direnean.
		10 Azpigako hau kontsignatuko da gizarte-aurreikuspen boluntarioko entitateentzako ekarpenei buruz ari garenean.
		"B" gakoari dagozkion ekarpenetan erabili beharreko azpigakoak: 10 Azpigako hau kontsignatuko da gizarte-aurreikuspen boluntarioko entitateentzako kontribuzioei buruz ari garenean.

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
83-84	Numerikoa	"C" gakoari dagozkion ekarpenetan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako honetan idatzi beharko da, baldin BGAEko bazkide babesleen edo lan sistemako pentsio planaren sustatzaileen ekarpenak —haien zerga pertsonaletatik kengarri direnak— badira, eta baldin, hurrenez hurren, zergen aldetik bazkide arruntei edo partaideei egotzen bazaizkie.
		02 Azpigako hau erabiliko da enpresaburu indibidualak BGAEei eta pentsio planei egiten dizkien ekarpen propioak adierazteko, baldin eta entitate eta plan horien bazkide sustatzaile eta bazkide arunt zein sustatzaile eta partaide ere bada, eta ekarpen horiek bere zerga pertsonaletan kengarriak badira.
		03 Azpigako hau jasoko da BGAEra eta enplegu sistemako pentsio planera egindako ekarpenen kasuan, baldin eta ekarpen horiek langilearen erabaki baten ondorio badira eta harentzat gauzako ordainsariak badira.
		04 Azpigako hau jarri behar da enpresa kontribuzioak direnean, partaideei edo onuradunei zerga ondoreetarako egotzi ezin zaizkienak eta salbuespenez eginak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren 5.3.c) artikuluan aurrez ikusitakoarekin bat etorritik. Era berean, azpigako hau jarri behar da enpresak lehendik hartutako pentsioen ziozko konpromisoak bideratzeko egindako kontribuzioak direnean, kenkari mugapekoak dituztenak, sustatzaileek berrorekatze planak burutzeko egindakoak, aipatutako Pentsio Planak eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren 4 eta 6. xedapen iragankorrari helduz direnak. Azpigako hau jarri behar da, berebat, kontribuzioak sustatzaileek Pentsio Plan eta Funtsei buruzko 8/1987 Legeko lehen xedapen iragankorrari heldutako berrorekatze planak burutzeko eginak direnean.
		"D" gakoari dagozkion ekarpenetan eta zuzkiduretan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako honetan idatziko da baldin sustatzailearen Zerga pertsonalean kengarriak ez diren ordeko sistemetara egindako ekarpenak badira, eta zerga aldetik langileei egotzi ez zaizkienak, 190 ereduan kontura egindako jenerotako ordainketatzat jarri gabe.
		02 Azpigako hau jarri behar da enpresak lehendik hartutako pentsioen ziozko konpromisoak bideratzeko egindako aseguru kontratueterako kontribuzioak direnean, langileei zerga ondoreetarako egotzi ezin zaizkienak eta kenkaririk jaso ezin dezaketenenak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik.
		03 Azpigako hau jarri behar da enpresak lehendik hartutako pentsioen ziozko konpromisoak bideratzeko egindako kontribuzioak direnean, onuradunei zerga ondoreetarako egotzi ezin zaizkienak eta sustatzailearen zerga pertsonalaren kengarriak direnak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuaren bosgarren xedapen iragankorreko 5 idatz zatien xedatutakoarekin bat etorritik.
		Gogoan izan: Pentsio planen eta gizarte aurreikuspenetarako mutualitateen erako prestazio estaldurako sistemetara egindako enpresa ekarpen eta zuzkidurak —zergen aldetik langileei egotzekoak direnak— ez dira 345 eredu honetan sartuko, baizik eta 190 ereduan (lan-etekinengatik, zenbait ekonomia jardueren etekinengatik eta sariengatik PFEZaren kontura egindako atxikipenen eta sarreraren urteko laburpenarena).
		"E" gakoari dagozkion ekarpenetan eta zuzkiduretan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau jarri beharko da enpresaburu indibidualak gizarte aurreikuspenetarako mutualitateari egindako ekarpen propioak direnean, eta, era berean, enpresaburu hori mutualitatearen sustatzailea eta mutualista ere baldin bada.
		02 Azpigako hau jarri beharko da profesionalek edo banakako enpresaburuek ordaindutako zenbatekoak direnean, baldin eta murrizketa jasotzeko eskubidea ematen badute, eta 01 azpigakoan aipatutakoak baldin ez badira.
		"F" gakoari dagozkion ekarpenetan eta zuzkiduretan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau jarri beharko da gizarte aurreikuspenetarako mutualitateari ordaindutako zenbatekoak direnean, baldin eta mutualitate horiek jarduten badute besteren konturako langileei edo bazkide langileei dagozkien pentsio planen gizarte aurreikuspenetarako sistema alternatibo gisa, Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren 8.6 artikuluan aurreikusitako kontingentziak estaltzea xede duen zatian, langile horien langabezia barne, 02 azpigakoan jaso behar ez badira.
		02 Azpigako hau jaso beharko da langileen ekarpenak eta enpresak oro har egindako kontribuzioak gizarte aurreikuspenetarako mutualitate berera egiten direnean.
		"G" gakoari dagozkion ekarpenetan eta zuzkiduretan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau jarri beharko da, bazkide babesleak eta sustatzaileak ordaindutako eta langileari zerga bidez lan etekin gisa egotzitako zenbatekoak direnean, pertsona fisikoan errentaren gaineko zergaren zerga oinarrian murrizketa izateko eskubidearekin.
		02 Azpigako hau jarri beharko da bazkide babesleak eta sustatzaileak ordaindutako zenbatekoen kasuan, baldin eta kopuru horiek langilearen erabaki baten ondorio badira eta langile horrentzako gauzako ordainsariak badira.

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
83-84	Numerikoa	"I" gakoari dagozkion ordaindutako primetan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau kontsignatuko da hartzaileek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Aginduko laugarren xedapen gehigarrian zehaztutako aurrezpen sistematikoko banakako plani egindako ekarpenen kasuan.
		02 Azpigako hau kontsignatuko da hartzaileek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Aginduko hamabigarren xedapen gehigarrian zehaztutako aurrezpen sistematikoko banakako plan bihurtzen diren aseguru-kontratuei egindako ekarpenen kasuan. Gako hori kontsignatuz gero, aseguru-entitateak urtean primetan ordaindutako gehieneko mugaren baldintza, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiko 123.10,d) artikuluan zehaztutakoa, betetzen dela adieraziko du.
		"J" gakoari dagozkion ordaindutako primetan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau kontsignatuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Aginduko 70.1.6. artikuluan zehaztutako enpresako gizarte-aurreikuspeneko planen aseguratuek egindako ekarpenen kasuan.
		02 Azpigako hau jarriko da enpresak egindako ekarpenak direnean, baldin eta ekarpen horiek langilearen erabaki baten ondorio badira eta langile horrentzako gauzako ordainsariak badira.
		03 Azpigako hau kontsignatuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Aginduko 70.1.6. artikuluan zehaztutako enpresako gizarte-aurreikuspeneko planen hartzaileek egindako ekarpenen kasuan, fisikoki partaideei egotziko zaizkienean.
		04 Azpigako hau jarri beharko da, baldin eta banakako enpresaburuaren ekarpen propioak direnean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 70.1.6. artikuluan aipatzen den enpresaren gizarte aurreikuspeneko plan batean, eta, era berean, plan horren hartzailea eta aseguratua ere baldin bada.
		"L" gakoari dagozkion ordaindutako primetan erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hau jarri beharko da enpresak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 70.1.7. artikuluan azken aurreko paragrafoan aipatzen diren mendekotasun aseguru kolektiboak ordaindutako primen kasuan.
		02 Azpigako hau jarri beharko da enpresaburu indibidualak mendetasuneko aseguru kolektiboetara egindako ekarpen propioak direnean, eta, era berean, aseguru hartzaile eta asegurduna ere baldin bada.
		03 Azpigako hau jarriko da langile enpresak egindako ekarpenak direnean, baldin eta ekarpen horiek langilearen erabaki baten ondorio badira.

Hiru. Aldatzen da "ONURADUN DESGAITASUNAREN IFZ" eremuaren azalpena, 85tik 93ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 345 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuen erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
85-93	Alfanumerikoa	ONURADUN DESGAITASUNAREN IFZ Onuradunaren IFZ adierazi behar da horrek % 65eko edo hortik gorako desgaitasun fisikoa edo sentimenezkoa duenean, % 33ko edo hortik gorako desgaitasun psikikoa duenean eta desgaitasun maila gorabehera epai bidez aitortutako ezintasuna duenean, baldin eta modu bakar eta ezeztazinean onuradun gisa izendatu bada. Hori guztia, betiere, PFEZren Foru Arauko 74. artikuluan ezarritakoa betez. Ekarlea desgaitua bera izan daiteke, edo ahaideren bat, zuzeneko zein hirugarren gradurainoko albo lerrokoa, edo ezkontidea, edo tutorea nahiz harrera egilea, edo sustatzaileraren bat. Agertzen den pertsona edo erakunde bakoitzaren ekarpenak erregistro batean adierazi behar dira. Eremu hau eskuinean lerrotatuko da, kontrol karakterea azkenean jarriko da, eta ezkerreko zuriuneetan zeroak jarriko dira, IFZren betekizunak araupeku dituen uztailearen 8ko 71/2008 Foru Dekretuan ezarritako arauekin bat etorritik (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa).

Lau. Aldatzen da "LEHENENGO PRIMAREN ORDAINTZEDATA" eremuaren azalpena, 170etik 177ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 345 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
170-177	Numerikoa	LEHENENGO PRIMAREN ORDAINTZEDATA (“I” gakoakoa besterik ez) Gakoa esparruan (2 motako erregistroaren 82 kokalekua) “I” (aurrezpen sistematikoko banakako planak) kontsignatu denean esparru honetan aurrezpen sistematikoko banakako planeko lehenengo primaren (01 azpigakoa) edo aurrezpen sistematikoko banakako plan bihurtu den bizitza-asegurua (02 azpigakoa) data kontsignatuko da, eta urtearen lau digituak zehaztuko dira, hilabetearren biak (01etik 12ra) eta egunaren biak (0tik 31ra), UUUHHEE formatua kontuan hartuta.

Bost. Aldatzen da "ASBP-EAN METATUTAKO ZENBATEKOA" eremuaren azalpena, 178tik 189ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduren II. eranskinean jasotzen diren 345 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
178-189	Numerikoa	ASBP-EAN METATUTAKO ZENBATEKOA Numerikoa, 12 kokalekukoa. "1" gakoko 01 eta 02 azpigakoetarako Aurrezpen Sistematikoko Banakako Planean metatutako primen zenbateko osoa jarri behar da. Zenbateko hau ezin daiteke izan zergadun bakoitzeko 240.000,00 euro baino handiagoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauko hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritz. Eremu honetan bi atal daude:
		178-187 ASBPean metatutako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.
		188-189 ASBPean metatutako zenbatekoaren hamartarrak. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2022. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 3a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA